

«Hunkigarrismotik ihes egiten saiatu naiz literaturan 'Gauzaz' hitz egitean»

Iban Zalduek 'Nola izan garen gauza' (Erein) ipuin bilduma argitaratu berri du, euskal gatazkari buruz idatzi dituen «ia guztiak» jasotzen dituen

JON AGIRRE

DONOSTIA. Bere burua «historiari eta ipuin idazle, ez literatur aditu» bezala aurkeztu bazuen ere, Iban Zalduek literatura ulertzeko moduari buruzko klasea eman zuen 'Nola izan garen gauza' (Erein) ipuin bildumaren aurkezpenean. Argi utzi zuen ezin dela «tresna» bezala ulertu eta fikzioa idaztean «literatura» bera izan behar dela helburua. Horren aurrean, bere beldurra erakutsi zuen azken urteotan identifikatutako modaren aurrean. «Sentimentalismoa bezalako arriskuetan erortzea. 'Gauzaz' –euskal gatazkaz aritzeko Iban Zalduek erabiltzen duen eufemismoa– hitz egitean hunkigarrismotik ihes egiten saiatu naiz», plazaratu zuen.

Ildo horretan, Zalduek hitzartzea euskal idazleen defentsa egiteko baliatu zuen, askotan leporatu zaien isiltasunaren harira. «'Gauzari' eta halako kontuei buruz idatzi badut beste batzuk idatzi zutelako da». Beste askoren artean, 'Ehun metro' lana jarri zuen mugarriz gisa eta autore zerrenda luzean Jokin Muñoz eta Ramon Saizarbitoria nabarmendu zituen. Eta ez hori soilik. Zalduek usetan «urgentziazko kronika edo kazetaritzaren aurrean» denbora eta hausnarketa behar baitira eta adibide modura jarri du «pandemiari buruzko» literatura egiteko batzuek duten «presa. Produktu asko azalekoak dira eta ba-



Iban Zalduek 'Nola izan garen gauza' ipuin-bildumaren aurkezpenean. MICHELENA

NOLA IZAN GAREN GAUZA IBAN ZALDUEK

Estiloa: Narratiba.
Argitaletxea: Erein.
Orri kopurua: 448.
Salneurria: 14 euro.



lio literario gutxikoak», salatu zuen.

«Agian arrazoi dute, nik duela 25 edo 30 urteko gauzak oraindik buruan ditut, baina ez dudalako topatu literarioki nola kontatu. Idatzi behar dugula iruditzen zait, baina ez inpultso etiko edo politikoagatik», iritzi zuen. «Saiatu naiz, lortu dudana ala ez irakurleak esango du», bota zuen umore-

rez. Hari horri tiraka, eta Edurne Portelaren hitzak zitatzuz, «fikzioa afektuen ekonomiaren kontrako antidotoa» izan daitekeela gaineratu zuen Zalduek eta «gureekiko eta besteekiko» enpatia gartzan lagun dezakeela. «Espinozak esan bezala, imajinazio murriztu eta enkistatua zabaltzeko aukera ematen du».

60 ipuineko bilduma

Irakurleak ipuin-bilduman 60 testu aurkituko ditu, Zalduek ibilbide luzean idatzitakoak. Guztiak, noski, «euskal gatazkaren, terrorismoaren, gure arazoaren» gainean idatziak dira eta izenburuak zein azpigituluak, 'Euskal gatazkaren inguruko ipuin (ia) guztiak',

«horrekin egiten du jolas antzekoa». 'Como si todo hubiera pasado' antologia osatu du idazle donostiarrek. Besteak beste, lau ipuin berri gehitu ditu, bat «'Partidak', luzea eta jakingarria», Inazio Mujika, Ereineko editorearen esanetan.

Ez da Zalduek lanak duen sorpresa bakarra. Egileak berak azpimarratu zuen «plus handienetakoa» Ibon Egaña kritikakoak egindako «hitzaurrea» dela eta atzeko azalean Uxue Apaolazak «liburua irakurtzeko» bildu dituen arrazoiak ez direla atzean geratzen. «Normalean sinatu gabe dago eta faltsua iruditzen zait. Hainbat pista ematen ditu liburuari buruz», gaineratu zuen Zalduek.

Zuhurtziarako deia egin dute Durangoko Udalak eta Gerediaga elkarteak

DV

DONOSTIA. Durangoko Azokaren 56. edizioaren atarian, zuhurtziarako deia berretsi dute Durangoko Udalak eta Gerediaga elkarteak. «Azoka gerturatzen doan heinean, gure ahalegin guztiak biderkatu behar ditugu Durangoko Azokan eta Durango osoan osasun eta segurtasun neurri guztiak errespetatu daitezen», nabarmendu zuten atzo egindako agerraldian. Euskal Editoreen elkarteak, Musika Bulegoko eta

herriko ostalaritzako ordezkariak ere izan ziren bertan.

Aurtengoa «edizio berezia» izango dela adierazi zuten: «Iazko Azokaren ostean, uste genuen aurtengoak beste urte batzuetako antzeko kopuruak izango zituela. Dena den, eta azken asteetan pandemiak izandako eboluzioa dela eta, neurri zorrotzak hartu behar izan ditugu guztion osasuna zaintzeko».

Euskal Herrikerik bertaratuko diren kulturzale guztiei errespetuz joka dezaten eskatu diete, «Du-



Agerraldi bateratuko irudia. NAHIKARI CAYADO

rangok ateak irekitzen dizkien bezala, errespetuz eta erantzukizunez bizi nahi dugulako Durangon». Horrenbestez, neurriak «zorrotasunez» betearaziko direla nabarmendu dute.

Gogoan izan behar da, bestalde, astelehenaz geroztik martxan dagoela Azokaren web gunean erreserba egiteko sistema. Tarteren bat bete da, baina milaka aukera daude oraindik.

29 ohorezko eta 19 urgazle berri izendatu zituen Euskaltzaindiak Iruñeko bilkuran

DV

DONOSTIA. 29 ohorezko eta 19 urgazle izendatu zituen Euskaltzaindiak pasa den ostiraleko osoko bilkuran. Ohorezko berri gipuzkoarrak Luis Alberto Aranberri 'Amatiño' (Eibar, 1945); Itziar Idiazabal (Gaintza, 1949); Anjel Lertxundi (Orio, 1948); Xabier Mendiguren Bereziartu (Ezki-Itsaso, 1945); Jose Antonio Mujika (Donostia, 1943); Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944) eta Josu Zabaleta (Legazpi, 1948) dira.

Araba eta Bizkaiko ohorezkoak, berriz, Antton Aldekoa-Otalora (Iurreta, 1951); Pilare Baraiazarra (Meñaka, 1938); Jesus Eguzkitza (Atxondo, 1946); Juan Luis Goikoetxea (Mungia, 1947) eta Lontzo Zugazaga (Gamiz, 1943) dira. Nafarroa ordezkatzuz izendatu dituzte Manolo Arozena (Goizuetza, 1949); Carlos Garaikoetxea (Iruñea, 1938); Maria Pilar Lasarte (Leitza, 1937); Daniel Lopez (Ablitas, 1948); Rosa Miren Pagola (Iruñea, 1949) eta Pakita Zabaleta (Leitza, 1948).

Piarres Aintziart (Heleta, 1937); Luzien Etxezaharreta (Hazparne, 1946); Daniel Landart (Donostiri, 1946); Mixel Oronoz (Baigorri, 1935) eta Marikita Tambourin (Baigorri, 1946) dira Ipar Euskal Herriko ohorezko euskaltzain berriak, eta Euskal Herrikerik kanpokorik ere bada: Bernhard Hurch (Schärding/Inn, Austria, 1955); José Antonio Pascual (Salamanca, 1942); José María Sánchez 'Txepetx' (Cartagena, 1952).

Urgazle berriei dagokienez, Gipuzkoakoak, Ipar Euskal Herrikoak eta Bizkaikoak izendatu dira, Arabakoak eta Nafarroakoak aurretik izendatu zirelako. Kike Amonarriz (Tolosa, 1961); Nerea Azurmendi (Legazpi, 1961); Asun Garikano (Tolosa, 1962); Aizpea Goenaga (Donostia, 1959); Oroitz Jauregi (Legorreta, 1974) eta Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966) dira Gipuzkoako urgazleak. Bizkaikoak, berriz, Libe Agirre (Meñaka, 1961); Eneko Barrutia (Bilbo, 1966); Eba Gaminde (Bilbo, 1968); Pedro Maria Goikoetxea (Lezama, 1959); Nerea Mujika (Durango, 1960) eta Elixabete Piñol (Bilbo, 1965).

Ipar Euskal Herrikerik dira Mixel Aurnague (Baigorri, 1963); Eneko Bidegain (Baiona, 1975); Itxaro Borda (Oragarre, 1959); Pantxo Etxegoin (Jatsu, 1960) eta Marie-Andrée Ouret (Suhuskune, 1970) eta Euskal Herrikerik kanpokoak Manuel González (A Coruña, 1951) eta Mikel Morris (AEB, 1957).